



Ormaiztegui Udala

**2019ko maiatzaren 20ko
UDALBATZA OSOKOAREN
BATZARRE OHIKOA**

ORMAIZTEGIIn, 2019ko maiatzaren 20an, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, Jon ENRIQUE GALARZA alkate jaunaren lehendakartzapean, BATZARRE OHIKOA lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta alde zuzenetik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Izaskun UNZURRUNZAGA PILDAIN And.
- Beñat HACH EMBAREK IRIZAR Jna.
- Jose Maria YURRITA ARREGI Jna.
- Aitor YURRITA ZABALA Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, baina bere ezagertzea desenkusatzuz:

- Inor ez.

Ez da agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Josu Mirena MAYORA ORIA Jna.
- Olaia IZAGUIRRE CRUZ And.
- Agustin GILABERT MOLIST Jna.
- Rosario BERASATEGI AIZPEOLEA And.

Segidan Lehendakariak hasiera eman dio bilerari, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

LEHENENGO PUNTUA:
UDALBATZARREKO AURREKO AKTEN ONARPENA.

Idazkariak akten inguruan ea baten batek zerbait adierazi nahi duen galdetu du.

Udalkideetatik inork ez du ezer adierazi.



...//...

Beraz, eta besterik gabe, udalbatzarrari aurkeztu zaizkion aktak onartutzat eman dira, akta hauek jarraian datozena direlarik:

- 2019.03.25eko Bilkura ohikoa (O-19-03).
- 2019.04.02ko Bilkura ezohikoa (E-19-04).

BIGARREN PUNTUA:
ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

- R-19/101etik R-19/148ra.

Idazkariak hartu du hitza eta galdetu du ia inork ezer esateko daukan.

Ez du bertaratutako zinegotzietatik inork hitzik hartu.

HIRUGARREN PUNTUA:
2018ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea

Idazkariak Udalkideen esku utzi du 2018ko Udal Aurrekontuaren Likidazioa, aurretik Ogasun Batzordean aztertu eta ontzat eman zena.

Udalkideek ez dute oharrik edo bestelako aipamenik edo galderarik egin eta hurrengo puntuari heldu zaio.

LAUGARREN PUNTUA:
2018ko Kontu Orokorraren haserako onarpena, hala badagokio.

Idazkariak adierazi du ez dela berez Plenoak onartu beharreko dokumentua, Ogasun Batzordeak bere 2019/05/15eko bileran oniritzia eman izana nahikoa baita. Guztiarekin ere, azalpenak emateko prest agertu da eta laburpen bat eskaini du eta azpimarratu aurrekontu emaitza positiboa dela eta altxortegi gerakina milioi bat eta berrehun eta laurogeita lau mila eta bederatzi ehun eta hirurogeita hemeretzi euro eta bederatzi zentimokoa dela (1.284.979,09 €).

Ez da galderarik izan eta ontzat eman da ahobatez.



Ormaiztegui Udala

...II...

BOSTGARREN PUNTUA: **UDAL BULEGOEN ABUZTUKO ORDUTEGIA.**

Alkateak Udal Bulegoak abuztuaren 5etik 14ra ixtea proposatu du, udal langileek oporrak hartu ahal izan dezaten.

Eztabaida ireki da eta Jose Mari Iurrita zinegotziak adierazi du hainbat herritarri ez zaiola ondo iruditzen Udaletxea ixtea, atzeratu ezin diren tramiteak egin behar izaten baitira zenbait kasutan.

Idazkariak azaldu du atzeratu ezinekoak izan daitezkeela heriotza kasuak adibidez, baina hori aurreikusita dagoela, hilerriko arduradunaren telefonoa jartzen baita, bere baimenarekin, herritarren esku. Bestalde, alkate jaunak adierazi du jaiotzekin eta heriotzekin lotutako tramite batzuk Bake Epaitegiari dagozkiola eta Epaitegiak bere ordutegia duela, Udal Bulegoenetik aparte. Horrez gain, idazkariak argitu du jaiotza inskribatu daitezkeela ama erditzen den ospitalean ere eta ez dagoela Bake Epaitegira etorri beharrik.

Bestetik, idazkariak aipatu du gaur egun tramite gehienak egin daitezkeela udal web orrialdearen (<http://www.ormaiztegi.eus/>) Zerbitzu Telematikoen bitartez, 365 egun urtean 24 orduz egunean, bai eta edozein posta bulegotan (Correos) ere, dokumentuen eta eskarien aurkezpenari dagokionean.

Horrez gain, adierazi du urteko beste momentu batean oporrak hartzeak lan dinamikan eta ematen diren zerbitzuetan ondorio okerragoak izango lituzkeela eta ez lukeela ezer konponduko.

Alkateak erantsi du badela beste aukera bat, hurrengo korporazioak aztertu beharko duena, alegia, langile bat kontratatzea plantillako udal langileek ordezkatzeko, beharra sortzen denean, eta gastu hori udal aurrekontuan jaso beharko litzatekeela, hala erabakiz gero.

Beñat Hach Embarek zinegotziak azpimarratu du informazioa helarazi behar zaiela herritarrei honen guztiaren inguruan, izango dituzten aukeren berri emanaz. Alkateari eta gainerako zinegotzei ondo irizita, buzoneoa egitea erabaki da argibide guztiak emateko, eta Udal Bulegoak abuztuaren 5etik 14ra itxiko direla ebatzi da.

SEIGARREN PUNTUA: **ERREGUAK ETA GALDERAK**

Ez da erregurik ez galderarik planteatu.



Udal1-batzarre
O-19.05.08

Ormaiztegiako Udala

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:40 ordu direnean, bilkura amaituzat ematen da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2019ko maiatzaren 24ean.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin.: Begoña Antxustegi Bengoetxea

...//...
O-19/05-04